

Giro ona herri kiroletan

Egaña eta Tapia izan ziren irabazle ▶ 4



Merkealdia hasi da dendetan; erosle kopurua goraka doa

GASTUA ▶ Herritar bakoitzak 200 euro inguru gastatuko duela diote

AHOLKUA ▶ Beharrezkoa bakarrik erostea aholkatzen du kontsumitzaile bulegoak

AZKAR ▶ «Jendea inoiz baino azkarrago mugitu da», dio Arkupe dendakoak ▶ 2-3

IBARRA ▶



Telletxea, jokalaria onena. HITZA

Beti irabazik lortu du Futbito Txapelketa

Hamahiru taldek eman zuten izena; jarraitzeko asmoa du Gaztetxeak ▶ 6

LEITZA ▶

Liderrari erraz irabazi dio Aurrerak

Altsasuri bost gol sartu zizkion Arkixkilen ▶ 7



Landa eremuko Udaltalde 21 programa sinatu dute

ALBIZTUR-ALKIZA-BIDEGOIAN-LARRAUL ▶ Landa eremuko Udaltalde 21 programa pilotuan sartu dira Albiztur, Alkiza, Bidegoian eta Larraulgo udalak. Atzo izan zuten lankidetz hitzarmenaren sinadura ekitaldia Larraulgo udaletxean lau alka-teek IHOBE, Foru Aldundia eta Mendikoiko ordezkariekin batera

—argazkian—. Hitzarmen honen ondorioz, Tokiko Agenda 21aren metodologia herri txikietara egokituz, garapen iraunkorraren alde elkarrekin lan egiteko saiakera egingo dute lau udal hauek. Programa aitzindaria izango da eta finantziazio berezia izango du, kosturik gabe udalentzat. IMANOL GARCIA ▶ 4

ANOETA ▶

Lehiaketa hutsik gelditu ondoren, Alkartasuna biltokiko 8 kidek hartu dute barraren ardura

«Alkartasunarekin aterako da aurrera egoitza», dio Manuel Odriozolak ▶ 4

MERKEALDIA ▶

Kalitate berekoa, merkeago

Hainbat kontsumitzaile elkartek egindako kalkuluen arabera, herritar bakoitzak 200 euro inguru xahutuko ditu merkealdian; erosle kopurua igotzen ari da urtero

L. MONTES - I. ETXEBESTE



%30eko beherapenekin hasi dute Tolosako denda gehienetan merkealdia. Kopuru hori aldatuz joango da salmenta kopuruen arabera. I. ETXEBESTE

AMAIA IMAZ ▶ MERKATARIA

«Aurten jendea inoiz baino azkarrago mugitu da»

Larunbatean hasi zuten merkealdia Tolosako Arkupe dendan. Bezeroen joan etorriaz mintzatu da HITZAREKIN Amaia Imaz, bertako jabea.

Gabonak amaitu direla konfuratu orduko gainean dugu merkealdia...

Nire ustez, aurten jendea inoiz baino azkarrago hasi da merkealdira etortzen. Ostriralerako, adibidez, bat baino gehiago etorri zen merkealdia noiz hasiko zen galdezka.

Jende asko mugitzen al du merkealdiak?

Ohitura handia dago, bai. Baina, nire iritziz, jendea gero eta gutxiago animatzen da merkealdian erostera. Produktuen arabera ere izaten da askotan.

Zer uzten du bezeroak merkealdian erosteko?

Normalean, gauza handienak edo garestienak: arropa, zamarak... Bezeroak, horrelakotan, Eguberrietan bota dio begia produktu horri, baina merkealdia iritsi arte itxaroten du erosteko. Pitxiak inoiz edo osagarriekin, berriz, ez da hain ohikoa itxaron behar hori.

Zenbateko beherapenarekin hasi duzu merkealdia?

%30eko beherapenarekin. Urtero hala egiteko ohitura dut. Gero, egunek aurrera egin ahala, %40ra igotzen dut beherapena, eta, ondoren, %50era ere bai. Uztailean, merkealdiak hilabete soilik irauten duenez, azkarrago aldatzen eta igotzen dut beherapenen zenbatekoa; baina orain, bi hilabeteko merkealdia denez, pixkanaka-pixkanaka joaten naiz aldatzen.

Dendari bakoitzak erabakitzen al du beherapenaren zenbatekoa?

Zuk, zure salmentak eta egotzera jakinda, finkatu behar duzu zure martxa. Ezin diozu eten-gabe begiratu besteek egiten dutenari. Halaxe pentsatzen dut nik behintzat.

Eta Gabonetako promozioetan?

Ez nago batere ados Eguberrietako promozioekin. Dendari bakoitzak nahi duena egiten du, eta uste bezala jartzen ditu deskontuak eta promozioak. Arlo horretan uste dut iriz-



I. ETXEBESTE

pide batzuk finkatzea oso beharrezkoa dela. Merkatari guztiek bat egin beharko genuke; ados jartzea oso garrantzitsua iruditzen zait, eta, une honetan, ez dugu horri buruz hitz egiten.

Merkealdi garaia beharrezkoa al da?

Merkealdia ona da denboraldiko produktuak ateratzeko; modak segituan aldatzen dire-

lako, eta egun punta-puntan dauden hainbat produktu laster zaharkiturik gelditu daitezkeelako. Baina gaizki pentsatuta daudela ere iruditzen zait: Euskal Herrian negu luzea dugu, eta horri atera beharko genioke etekina. Otsailerako, adibidez, hementxe izango ditugu udaberriko arropak eta osagaiak; azkarregi egiten ditugu aldatzeko. ◀

Denboraldian saldu gabe geratu diren hondarrak ateratzea da merkealdiaren helburu funtsezkoena merkatariarentzat. Kontsumitzaileen ikuspuntutik, ordea, produktuak merkeago eta kalitate berarekin erosteko aukera izateak du garrantzia. Finean, ekintza komertzial jakin bat da beherapenen garaia, eta urtean bitan izaten da aldi hori. Neguko merkealdia hasi besterik egin ez den honetan, Tolosako denda batzuetara jo du HITZAK, herritarren erosteko joerak aztertze aldera. Izan ere, inoizko salmenta handienak izango dira aurten go merkealdian. Aurreikuspenek hala diote, behintzat.

Gabonetako opariek diruztza handiak xahutu dituzte eskualdeko herritarrek aurten, eta, hala ere, badirudi merkealdiaren xarmak harrapatuta dutila asko eta asko, Tolosaldeko dendarien esanetan, «gero eta ohitura handiagoa» dagoelako beherapenetan erosteko. Bada aspaldian begia botatako produktua lehen baino merkeago erosteko aukera izan, eta dendatik hura eskuratu gabe alde egiten dutenak ez dira asko, ikusten denez. «Jendea zain egoten da erakuslehoian merkealdia iragartzien duen kartela noiz ikusiko, eta askotan, aurrerago beherapen handiagoa iragarriko ote dugun galdetzen dute». Bat datoz eskualdeko dendari gehienak baieztape horrekin.

%30eko beherapenekin hasi dute Tolosako merkatari gehienek merkealdia. Orohar arropa, osagarri eta zapata dendeke egiten dituzten beherapenak salgai dituzten produktuetan, eta kasu gehienetan kopuru hori igo egiten dute pixkanaka-pixkanaka. Beherapen motak, hala ere, %5 eta %70 artekoak dira orokorrean. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legediaren arabera, gutxienez astebete eta gehienez bi hilabete iraungo du merkealdiak. Egunak aurrera joan ahala aldatuz joango dira salneurriak, eta «produktuen eta salmenta kopuruen arabera» gehiago edo gutxiago iraungo dute beherapenak.

Hortaz, martxoaren hasiera bitarte izango da merkealdia aurten eskualdeko komertzio gehienetan, eta hainbat kontsumitzaile elkartek egindako kalkuluen arabera, herritar bakoitzak 200 euro inguru gastatuko ditu beherapenen sasoi

honetan. Nafarroan, martxoaren 6a arte izango da merkealdia, eta Miguel Sanzen gobernuko arduradunek esandakoa-
ren arabera, «ezingo dute bi hilabete baino gehiago iraun».

Gabonetako apaingarriak kendu gabe dituzte dendari askok oraindik, eta beste erakusle-
leho batzuk Inauteriak iragar-
tzen hasi dira honezkero. Ne-
guko merkealdia Gabonekin eta Inauterietan elkartzen da aurtengoan. Erosteneko eta pa-
rrandarako, dirua behar.

Beharrezkoa bakarrik

Tolosaldeko Kontsumitzaileen Bulegoak hainbat aholku ematen ditu urtero urteko bi merkealdietarako. Gauza bera egin du aurtengoan ere. Hango arduradunen esanetan, merkealdia erosteneko produktuak kalitate eta etiketa arau guztiak bete behar ditu. Hori dela eta, argi izan behar da «merkealdian egongo ez bagina bezala» jokatu behar duela kontsumitzaileak hondatuta dauden produktuak: «Merkealdia ez deneko errekla-
mazio bide berberak erabiltzeko eskubidea du kontsumitzaileak».

Merkealdian jartzen diren produktuek gutxienez hilabete egin behar dute aurretik den-
dan, eta inolaz ere ezin daiteke horietako batere merkealdira-
ko soilik jarri. Gainera, produk-
tuetan argi eta garbi azaldu be-
har dira lehengo prezioak eta merkealdikoak. Arau hori ez da, ordea, derrigorrez bete be-
harreko: «Besteak beste, produk-
tuak ehuneko finko bat merketzen badira, nahikoa da ehuneko hori azaltzea».

Bestalde, produktua hondatuta egonez gero edo bestelako akatsen bat izatekotan, saltzaileak derrigorrez aldatu behar dio kontsumitzaileari. Hala ere, badaezpada ere galdetu egin behar da komertzio horretan produktua itzultzeko aukera ematen duten. Gaizkiulertuak, zalantzak eta gora beherak ekiditeko modurik onena beharrezkoa dena soilik erostea dela diote Tolosaldeko Kontsumitzaileen Bulegoak ordezkariek. «Presarik gabe ibilita, kalitate bereko produktuak salneurri baxuagoan erosteneko aukera izango du kontsumitzaileak, eta bere eskubideak zeintzuk diren jakinez gero, nekez izango du arazo larririk».



Arropa, osagarri eta zapata dendetan da merkealdia. I. L. MONTES



Herritar bakoitzak 200 euro gastatuko ditu merkealdian. I. ETEBESTE

MERKATARIEI ▶

Tolosa Udaleko Ingurumen departamenduak abian jarri du Gabonetako pinuen bilketa kanpaina. Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamenduak *Merkealdia* kartela lortzeko aukera ematen die dendariei.

GABONETAKO MOTIBOAK

Pinu bilketa. Pinu eta motibo bilketarako edukinontziak honako lekuetan daude: Amaro zuzoa (futbol zelaiaren ondoan), Iparragirre zuzoa, Izaskun zuzoa (Bizkaia kalea), Berazubi zuzoa 9, Lurre zuzoa (Eroski alboan), Lurreamendi 1, Larramendi (Arkaute), Trinkete plaza, Belate 1 eta 12, Kale Barrena, Gorosabel kalea (Lur azpiko ondoan), Euskal Herria plaza (Txiki tabernaren ondoan), Zerkasua, Zumalakarregi kalea, Foruen etorbidea 4, Lope Mendizabal, Gernikako Arbola, San Esteban (Ferialekuko sarreraren ondoan), zezen-plaza (ate nagusiaren ondoan) eta Emeterio Arresen.

'MERKEALDIA' KARTELA

Tolosa Hiri Komertziala. Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamenduak *Merkealdia* kartela sortu du Tolosa Hiri Komertziala kanpainaren baitan, hala nahi duten merkatariek erakuslehoan jar dezaten. Udalekoko sarrera erregistroan eska daitezke kartel horiek, datozen egunetan.

KONTSUMITZAILEEN BULEGOA ▶

- ▶ **Zer.** Establezimenduetan erosketak egin edo zerbitzuak eskatzen dituztenentzat zuzendutako zerbitzu da.
- ▶ **Eskaintzen duena.** Informazioa eta aholkularitza, errekla-
mazioak bideratzea, bitartekaritza eta arazoei aurre egitea.
- ▶ **Non eta noiz.** Tolosan, astelehenean, asteazkenean eta ostiraletan, Kultur Etxean.

- Ibarran, asteartetan Kultur Etxean eta Villabonan, ostegunetan Euskaltegi ohiko eraikinean.
- ▶ **Orduetgia.** 09:30etik 13:30era.
- ▶ **Arretarako telefonoa.** 904 201 202. Hitzordua aurretik ere eska daiteke, bertara deituta.
- ▶ **Webgunea.** www.tolosaldea.net

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

- Alegia.** San Juan kalean 161 m2ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.
- Anoeta.** 60 m2. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntzarekin. 192.325 euro.
- Anoeta.** Iturburu. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntzarekin.
- Asteasu.** Eraikuntza berriko etxea salgai. Lau solairurekin, lorategia eta terrazarekin. Oso egoera onean. Aukera paregabea. 340.000 euro!
- Berrobi.** Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.
- Berrobi.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.
- Ibarra.** Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.
- Ibarra.** Euskal Herria kalearen

- hasieran garaje itxia salgai.
- Ikaztegieta.** Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. 270.455 euro.
- Ikaztegieta.** Sei etxe atxikien eraikuntza berria. Informazio pertsonala.
- Irura.** Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!
- Ordizia.** Berritutako etxebizitza merkea salgai.
- Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.
- Tolosa.** Amaro zuzoan oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.
- Tolosa.** Belate. Hiru logela eta bi bainugela. Berritua.
- Tolosa.** Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrearekin. Aukera paregabea!
- Tolosa.** Erdialdean. 130 m2ko

- etxebizitza salgai. 4 logela (1 bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.
- Tolosa.** Foruen Etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikustekoa!
- Tolosa.** Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntzan, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.
- Tolosa.** Lurre. Garaje itxia salgai.
- Tolosa.** Lurre inguruan guztiz berritutako bi logelako etxebizitza.
- Tolosa.** Lurre. Hiru logelako pisua, ganbara eta garajea aukeran.
- Tolosa.** Larramendi. Orain dela gutxi eraikuntza. Bi logela, sukaldea, egongela eta trasteleku.
- Tolosa.** Berokuntza. Ezin hobeto.
- Tolosa.** Santa Klara. Lau logela. Berokuntza. Igogailua. Bizitzera

- sartzeko moduan.
- Tolosa.** Santa Klaran. Hiru logelako pisua salgai; sukaldearekin, egongelarekin eta bainugelarekin. Berokuntza.
- Tolosa.** Trinkete. Hiru logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!
- Villabona.** Etxeondo. Pisu ganbara eta garaje itxiarekin.
- Villabona.** Kale Berrian. Eraikuntza berriko etxea salgai. Garaje bikoitza, itxia aukeran.
- Villabona.** Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.
- Villabona.** Larrea zuzoan eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.
- Villabona.** Oriamendi zuzoan. Hiru logela, egongela eta sukaldea etxebizitza salgai. 210.355 eurotan.

ANOETA ▶ GIZARTEA



Santo Tomas egunean bistor jatea egin zuten Alkartasuna biltokian elkarteko kideek. I. GARCIA

Zortzi kide ariko dira Alkartasuna biltokian barra zerbitzua ematen

Anoetako Udalak deitutako egoitzaren barra eta jatetxe zerbitzuaren ustiaketako lehiaketa desertu zen

IMANOL GARCIA

«Elkartearen izena berak esaten duen bezala, alkartasunarekin aterako da aurrera elkarteko egoitza», azaldu dio HIRZARI Manuel Odriozola Alkartasuna elkarteko lehendakariak. Biltoki berria urriaren erdialdera inauguratu zen eta urte bukaera arte aurreko egoitzan aritzen ziren boskoteak izan du barra-zerbitzuaren ardura.

Bitartean, Anoetako Udalak lehiaketa atera zuen egoitza berriaren barra eta jatetxe zer-

bitzuaren ustiaketa. Baina inork ez zuen parte hartu lehiaketan. Egoera honen aurrean, asanblea deitu zuten elkarteko juntatik eta bertan kideen laguntza eskatu zen barraren ardura hartzeko. «Lehen zegoen boskotetik batek jarraitzen du eta beste zazpi aurkeztu dira», azaltzen du Odriozolak. «Beraz, orain bikoteak egin eta bakoitza astebetetz arituko da». Egoerak horrela jarraituko du norbaitek egoitzaren ustiaketaz arduratu nahi duen arte.

Manuel Odriozolak adierazi duenez, Udalarekin hitz egiten

izan dira eta malgutasun gehiago eskatu diote ustiaketaren baldintzak zehazterakoan. Orain, 120 euroko alokairua hilean eta egoitzaren sortzen dituen gastuak ordaindu behar ditu.

«Ez da erraza horrelako leku bati etekina ateratzea. Horregatik eskatzen diogu Udalari hasiera batean gauzak errazago jartzea, norbait animatzeko», dio Manuel Odriozolak. Badago esperantzarik, baina, bikote batek interesa azaldu baitu biltokiaren ardura hartzeko.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Irura. Eraiki berria. Egongela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Terraza. Garajea. Etxesagasti 943 696 856.

Ibarra. 85 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Kanpoaldera begira. Sartzeko moduan. Trastelekua.

35.500.000 pezeta, negoziagarriak. Etxesagasti 943 696 856.

Tolosa. Euskal Herria plaza. Azkeneko pisua, aukera. Eraikina zaharberritzen. Etxesagasti 943 696 856.

Tolosa. 70 m2. Egongela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Zaharberritua. 39.000.000 pezeta. Etxesagasti 943 696 856.

Zizurkil. 85 m2. Egongela, sukaldea,

hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera. 33.400.000 pezeta (negozigarriak). Etxesagasti 943 696 856

Zizurkil. 90 m2ko pisu ederra. 4 logela. 3 balkoi. Zaharberrituta. Etxesagasti 943 696 856.

Andoain. Kapritxoz zaharberrituta. 70 m2. Bi logela. Eguzkitsua. Trastelekua. Etxesagasti 943 696 856.

Alkiza. Banakako villa lur eremuarekin. Kapritxoz. Informazio pertsonala. Etxesagasti 943 696 856.

Behar dira. Eskaera handiarengatik: landako lur eremuak, hirigintzakoak, pisuak, villak, baserriak, saltzeko edo alokairuan.

ASTEASU ▶ HERRI KIROLAK



Egaña eta Elosegi motozerrarekin enborrak mozten. HITZA

Erakustaldi jendetsuak Andazarraten

Jende ugari izan zen herenegun —200 lagun inguru— Andazarraten burutu ziren bi erakustaldietan. Alde batetik, Ioseba Egaña eta Anjel Elosegi aritu ziren nor baino nor egurra mozten eta korrikari. Egaña aiarrak irabazi zion Elosegi asteasuarrari. 17 eta 14 puntu lortu zituzten, hurrenez hurren, eta modu honetara Egaña aurreko urtean galdutako erronkaren errebantxa bereganatu zuen. Bestalde, aharien arteko lehia izan zen. Bi asteasuaren ahariak aritu ziren: Jose Mari Soraluze *Kortak* eta Inaxio Tapia *Ziarrotek* bakoitzak hiru ahari jarri zituzten lehian. *Ziarrotek* irabazi zuen lehia, 11 puntu lortuz eta *Kortak* 9 besterik ez zuen lortu. Azkenik, saskia zozketatu zen ikusleen artean eta Amezketako Jokin Mujikari egokitu zitzaion.

ANOETA ▶

Dantza-sokako entsegua bihar Edurkan

Dantza-sokaren ekitaldia egiteko eguna gerturatzen ari da. Hilaren 29an izango da hitzordua eta bien bitartean entseguak egiten ari dira egitasmoan parte hartuko dutenek. Hurrengo entsegua bihar izango da, 19:30ean, Edurkan. Hemendik aurrera, falta diren hiru astetan, asteazkenetan, 19:30ean, eta larunbatetan, 11:00etan, izango dira entseguak Edurkako pabilioietan.

IRURA-ANOETA ▶

Autodefentsa ikastaroaren bilera, gaur

Iurako eta Anoetako udalek antolatuta duten autodefentsa ikastaroaren izena emateko azken eguna da gaur. Bi udalteeetan eman dezakete izena interesatuek. Izena eman dutenek gaur bilera izango dute, 19:00etatik aurrera. Iurako udaletxean. Bilera honetan erabakiko da ikastaroaren ordutegia. Urtarrilaren erdialdetik ekainera bitartean izango dira autodefentsa-ko klaseak.

IRURA ▶ GIZARTEA



Parte hartu zuten jubilatuek emanaldiaren une batean. HITZA

Antzerki irakurria jubilatuen eskutik

Aurreko astean, Eguberrietako egitarauaren baitan, jubilatuek *Gogoan erreinua* izeneko ipuina irakurri zuten. Zaharren egoitzan egin zuten haurrei zuzendutako ekitaldia. Bukatzean entzuloari goxokiak banatu zizkieten.

INGURUMENA ▶

Lau udalerrri, landa eremuko Udaltalde 21 programa pilotuan

Albizturko, Alkizako, Bidegoiango eta Larraulgo udalerriek Udaltalde 21a eratzeko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute



Eskualdeko lau udalerrietako eta erakunde desberdinetako ordezkariak sinatu zuten atzo Larraulgo udaldebtean egindako ekitaldian, Udaltalde 21a eratzeko eta garatzeko lankidetzaz hitzarmena. O.ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Landaeremuko Udaltalde 21 proiektu pilotoa martxan jartzeko konpromisoa hartu zuten atzo eskualdeko lau udalerriek —Alkiza, Albiztur, Bidegoian eta Larraul—. Tokiko Agenda 21aren metodologia landa-eremuko herri txikietara egokitu-tuz, garapen iraunkorraren alde elkarrekin lan egiteko saiakera egingo dute, beraz.

Lankidetzaz hitzarmena atzo sinatu zuten Larraulgo udaldebtean egindako ekitaldian; bertan, Jose Luis Aurrekoetxea, IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko zuzendari nagusia, Asier Albisu, Heziketa, Sustapen eta Landa Garapenerako Mendikoi, S.A. Sozietate Publikoaren lehendakaria eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailburuordea, Luis Mari Oiarbide, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorraren Departamentuko foru-diputatua, Maria Angeles Lazkano, Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartearen lehendakaria, Alberto Labaka, Albizturko alkatea, Jon Roteta, Alkizako alkatea, Juan Ugarte, Bidegoiango alkatea

eta Ion Urkaregi, Larraulgo alkatea izan ziren.

Eskualdeko landa-eremuko lau udalerriek herriaren garapen iraunkorra bermatuko duen prozesua eramango dute aurrera; horretaz gain, landa ingurune herrietarako aplikagarria izango den Tokiko Agenda 21a garatzeko metodologia berria sortuko dute.

Larraulgo alkateak ekitaldira gerturatutako ongi-gorria eman ondoren, mahaiaren eseritakoan aurkezpena egin zuen. Jarraian, Luis Mari Oiarbide foru diputatuak hartu zuen hitza: «Landa eremuko Udaltalde 21a sortzen den lehenengo aldia da; ez Gipuzkoan, ez Euskal Herrian ezta Estatu espainiarrean ere ez dago antzekorik; programa pilotoa da martxan jarriko dena». Horretaz gain, landa eremuko udalerrietan Agenda 21a martxan jartzeko saiakera egiteak merezi duela eta esfortzua herri handietara baino handiago izan arren, saiakera egitea garrantzitsua dela azpimarratu zuen. 2005. urtean zehar landa-eremuko beste bi Udaltalde sortuko direla eta horiek «Tolosaldeko herri txikietan gaurtik osatzen hasiko den Agenda hartuko

dute oinarrituz», gehitu zuen. Horrekin lotuta, Gipuzkoako udalerrri guztiak Tokiko Agenda 21 programaren barruan sartuta egotea espero duela ere aipatu zuen. Amaitzeko, landa eremuko proiektu pilotoa sinatu duten herrietako ordezkariak, «programa pilotuan sartzearen erronkan sartzeko izan duten erabakitze gaitasuna eta adorea» eskertu zieten.

Finantziazio berezia

Atzo aurkeztutako programa, aitzindaria izango da landa-eremuetan planteatzen delako. Finantziazioa ere ez da izango aurreko Udaltalde 21a pilotua gauzatzeko 100.000 euroko aurrekontua dago», azaldu du Jose Luis Aurrekoetxeak, IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko zuzendari nagusiak. «Finantziarioi dagokionez, lau udalerriek ez dute kosturik izango; aurrekontuaren %50a Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak jarriko du, %30a Gipuzkoako Foru Aldundiak eta gainontzekoa Eus-

LUIS MARI OIARBIDE FORU-DIPUTATUA

«Landa-eremuko Udaltalde 21a sortzen den lehenengo aldia da; programa pilotoa da martxan jarriko dena»

ALBERTO LABAKA ALBIZTURKO ALKATEA

«Datozen urteetan herria nola bideratu jakiteko informazioa lortzeko baliagarria izan daiteke»

J.L. AURREKOETXEA IHOBEKO ZUZENDARI NAGUSIA

«Finantziarioi dagokionez, hitzarmena sinatu dute lau udalerriek ez dute kosturik izango»

ko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Mendikoi sozietatearen bidez».

Asier Albisu, Heziketa, Sustapen eta Landa Garapenerako Mendikoi, S.A. Sozietate Publikoaren lehendakaria eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailburuordeak, Udaltalde 21a, ingurugiroaren eta garapen iraunkorraren alorra landuko denez, azken urteetan martxan jarritako landa-garapenerako plani falta zitzaizkien ikuspegia osatzeko baliagarria izan daitekeela esan zuen.

Alberto Labakak, Albizturko alkateak ere baliagarritzat jo zuen programa pilotua. «Herriaren azterketa egitea, eta gainera doan, garrantzitsua iruditzen zitzaigulako hartu genuen landa eremuko programa honetan sartzeko konpromisoa; datozen urteetan herria nola bideratu jakiteko informazioa lortzeko baliagarria izan daiteke».

Landa ingurune herrietarako aplikagarria izango den Tokiko Agenda 21a garatzeko metodologia berria sortuko dute eskualdeko lau udalerriek. Herri handienak 450 biztanle besterik ez ditu, beraz, Agenda 21a eraginkorra izatekotan, orain arte prozesuaren aplikazioan jarraitu den metodologia egokitu egin beharko da. Horrek esfortzu berezia eskatzen duela ikusita, Udaltalde 21 horretan Gipuzkoako Foru Aldundia, Mendikoi eta Tolomendi, Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkarteak ere elkarlanean ariko dira IHOBE eta lau udalerriek batera.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa, M.I. Kale Nagusia

7. 943 67 06 48

Larraia, M.I. Elbarren 52

(Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldeko_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 691933.

Sukaldaria eta tabernaria.

Sukaldaria eta tabernaria behar da. Deitu 15:00etatik aurrera.

943 682154.

ALOKAIRUA

Garajea. Garaje itxia alokatzen da. Telf: 609 435907.

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen
Ohorezko Maila.

Ourense-Hegoalde 2-2

1. Femesala Elche	39
2. Navalcarnero	32
3. UCAM Murcia	29
4. Preconte Telde	28
5. Zaragoza 2002	25
6. Ourense	23
7. Tec. Móstoles	21
8. Soto del Real	19
9. Fuenlabrada	19
10. Gironella	17
11. Hegoalde Tolosa	14
12. Rioja Diamante	13
13. Arturo Eyrías	10
14. Goierri	7
15. Valdeleiros Ferrol	4
16. Cavanyal Valencia	1

1. Maila A.

Burlada-Ibarra 5-9

1. Candesa Camargo 37

2. Los Peñucos 34

3. Sestao 29

4. Cafet. Atenea 28

5. UPV-EHU 23

6. Tomas Mingot 20

7. Burlada 19

8. Jarrileros 19

9. Soloarte 18

10. Carnic. Saenz 17

11. Virgen de Vico 16

12. Albelda 16

13. Ultzama 15

14. Ibarra 12

15. Salcedo 11

16. Rivera Navarra 8

1. Maila B.

Laskorain-Sasikoa 3-6

Lurraldekako 1. Maila.

Cash Converters-Jostaldi Kirolak 4-1

Nesken Liga.

Laskorain-Tinta Villabona 2-3

Inter-T.Lakuntza 2-2

FUTBOLA

Gorengoan Maila.

Tolosa-EHU 0-0

1. Tolosa 38

2. UPV-EHU 36

3. Ordizia 35

4. Touring 33

5. Zarautz 31

6. Pasajes 30

7. Real Union B 28

8. Zestoa 27

9. Arebabaleta 25

10. Mondragon 25

11. Hondarribia 25

12. Trinchierpe 24

13. Mutriku 23

14. Orioko 23

15. Anaitasuna 22

16. Aloña Mendi 21

17. Urola 20

18. Bergara 19

Jubenilen 1. Maila.

Sporting Herrera B-Billabona 5-0

Kadeteen Euskal Liga.

Arenas Club-Tolosa 3-0

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa-Barakaldo 1-0

Lurraldekako 1. Maila.

Tolosa B-LRoteta 1-4

Aurrera-Altsasu 5-0

1. Martutene 30

2. Alleru 30

3. Irun 1902 29

4. Beti Ona 26

5. Euskalduna 26

6. Mariño 23

7. Behobia 22

8. Lengokoak 22

9. Astigarragako 20

10. Ostadar 19

11. Roteta 19

12. Vasconia 16

13. Amara Berri 16

14. Gure Txokoa 15

15. Tolosa B 9

Lurraldekako 2. Maila.

Intxurre-Lasarte-Oria 5-1

Usurbil-Danena 4-1

Sanpedrotarra-Amaroz 4-0

1. Sanpedrotarra 29

2. Usurbil 21

3. Intxurre 18

4. Danena 18

5. Lazkao 15

6. Amaro 13

7. Lasarte-Oria 6

FUTBOL 7

1. Maila A.

Bar Ignacio Hond.-Ibarrako GA 2-1

Zardoya Otis-Lanbroa Dickens 2-2

2. Maila.

Bar Shanti Kirolak-Taberna Dani 1-4

IBARRA ▶ KIROLA

Beti Irabazi taldeak irabazi
du AHTren aurkako 24
Orduko Futbito Txapelketa

13 taldek eman dute izena aurtengo futbito txapelketan; antolatzaileek zuten helburua bete dutela-eta horrelakoak antolatzen jarraiteko asmoa azaldu dute



Iker Telletxea izan da jokalaria onena. WWW.IBARRAKOGAZTETXEA.NET



Beti Irabazi taldeak irabazi du txapelketa. WWW.IBARRAKOGAZTETXEA.NET

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den asteburuan futbol festa izan zen Ibarra. Izan ere, Ibarrako Gazte Asanbladak an-

tolaturik AHTren aurkako 24 Orduko Futbito Txapelketa jokatu zuten Belabieta kiroldegian.

13 taldek eman zuten guztira

izena aurtengo laugarren urtez antolatu duten futbito txapelketan. Urtero txapelketa hauetan lortutako etekinak talde edo erakunde desberdinei laguntzeko bideratzen dute Gazte Asanbladakoek eta aurtengoan AHTren aurkako ekitaldiak laguntzeko erabili nahi dute. «Hausnarketan aritu ondoren, antolatzaileek puri-puritan dagoen gai honen alde

egin nahi izan dugu», azaldu dute Ibarrako Gazte Asanbladakoek.

16 taldek izena ematea espero bazen ere, azkenean 13 izan dira txapelketan parte hartu dutenak. Hori dela eta, igandean 05:00etatik 08:00etara atsedendaldia egin ahal izan zutela aipatu dute antolatzaileek, «baina atsedean egin genuen tartea nabaritu egin zen ikusle-

SAILKAPENA ▶

LAU HOBERENAK

1. Beti Irabazi.
2. Petralak.
3. Amaro.
4. Ria y Cia.

BESTE SARITUAK

Atezain Onena. Borja Larrañaga (Petralak).
Gol egile nagusia. Iker Telletxea (Beti Irabazi).
Jokalaria Onena. Iker Telletxea (Beti Irabazi).

goan gerora, finalerdiak hasi zirenean jende gutxiago gerturatu baitzen Belabieta kiroldegira». «Hala eta guztiz ere, oso gustura gaude lortutako emaitzeekin jende asko gerturatu baita taldeak animatzera eta parte hartu duten talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu», adierazi dute.

Beti Irabazi taldea suertatu zen aurtengo txapelketan irabazle eta jokalaria onenaren saria, berriz, Iker Telletxearen eman zuen. Atezain onena Borja Larrañaga izan zen antolatzaileen arabera eta gol gehien egin zituen Iker Telletxea.

Zituzten helburu guztiak bete dituztela aipatu dute Gazte Asanbladakoek, baina Udaren aldetik izandako traba eta oztopoei aurre egin beharra zegoela horretarako, txapelketa bertan behera uzteko izan baitziren. Hala ere, mota hauetako ekintzekin jarraitzeko asmoa dutela, eta datorren urtean ere txapelketa izango dela gehitu dute Gazte Asanbladakoek.

LEITZA ▶ KIROLA

Liderraren aurka, zalantzarik gabeko partidua egin dute

Altsasuri 5 eta 0ko emaitza ateratu dio Aurrera taldeak eta aurrerako bidea errazago egiteko moduan gelditu dira



Aurrera taldeko liderrari gailendu egin zitzaion eta aurrerantzean lasaixeago jokatzeko moduan da. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

5 eta 0ko aldeko emaitza eskuratu zuen Aurrera futbol taldeak igandean, Arkixkilan jokatutako partiduan, eta Altsasuren aurka lortu ere, hain emaitza mardula, hots sailkapenean lider dagoen taldearen aurka.

Zalantzarik gabe, adierazi zuten Aurrera taldearen arduradunek beren jokalariek egindako lan ona, «partiduosan zehar, hasi eta buka, altsasuarrak baino hobeki aritu

dira jokoan etxeakoak», esanez. Partidua hasi eta berehalakoan igerri omen zen nagusitasuna, aurkariaren ateraino maiz iritsiz eta jokaldi polit askoak eginenez. Burundakoak oso makal aritu omen ziren. Aurreneko gola, ordea, 40. minutuan iritsi zen Arangoaren eskutik eta atsedenera joaterako bigarren, Olanok sartutakoa. Bigarren zatian ere golen jaialdiak jarraitu egin zuen, Azpiroz, Barberia eta Arangoaren partiduko bigarrenarekin. Pozik ageri ziren guztiak ere emaitza-

rekin eta batez ere liderraren aurka lortutakoa zelako.

Hain zuzen ere, partidu honen iragarpena egiterakoan, federazioaren arabera, Aurrera bigarren zegoela aitatu zen, horrela lider jartzeko aukerak zituelarik. Bada, orduko informazio hori ez omen zen zuzena, baina oraingoan bai, zuzendu dute, bigarren dagoela sailkapen taulan. Bestalde, arerio zuzenen aurka gelditzen zaizkien partidua etxean jokatzekoak omen dituzte, eta leku horri eusteko aukera irekita.

LEITZA ▶ KULTURA

Goma espumazko maskaren tailerra abian

Ihoteetarako prestatzeko aukera polita, maskarak egiten ikasi bitartean

J. ASTIBIA

Goma espumazko maskarak egiten ikasteko, tailerra antolatu dute, ihoteak ere ate joka direla ikusita.

Horrela, atxotzeko maskararen beharrea aurkituz gero, hori prestatu bidenabar izan daiteke, hauek nola egiten diren ikasteko ikastaro tiki bat egitekotan dira udalereko batzar aretoan, ilbeltzaren 15 eta 16ko astebukaera horretan. Zehazki, larunbat horretan, goizean, 9:00etatik aurrera hasiko da tailerra.

Hori bai, ikastaroa, 5 urtetik hasi eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoie bideratuta dago.

Ikastaro horrek eskaintzen duen aukeraz baliatu nahi dutenek, beraz, hilaren 12a baino lehen, biharko orduan, eman behar dute izena, Astiz edo Maimur liburudendetan.

Edozein moduz, bertan erabiliko duten materialaren ordainetan, parte-hartzaile bakoitzak hiruna euroko kopuruxoa ordaindu beharko omen du, oharrean bertan jarzuten duena.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Errepidea itxita egonen da Arakindegia parean

Gaur egun guztian zehar herrian sartzeko beste aukerak erabiltzeko aholkatu dute

J. ASTIBIA

Gaur egun guztian zehar, herrira sartzeko Tolosaldeko heldu den errepidea, Arakindegia parean itxita egonen dela ohartarazi dute.

Puntu horretan, Landa alde-ara egiten ari diren eraikuntza lanak direla eta, egun guztian kamioiak joan-etorrian ibili behar omen dutenez, lanen

arduradunek adierazi dute, segurtasun neurriak zaintzeko errepide horretako zirkulazioa moztuta egonen dela.

Bide batez, herrian sartu edo bertatik ateratzeko, dau den bestelako bideak erabiltzeko eskaera egin dute, bestalde, hala nola Inurrista industrialdeko bidea, alde batetik edota Patxi Arrazola aldekoa, bestetik.

hitza

txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 11, asteartea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kaialasaketa, Adura, Abotzu, Alegia, Alkiza, Alzco, Amerieta, Anorta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Iturri, Larramendi, Leizola, Oihenitz, Ormaiztegui, Tolosa, Villabona, Zuzuki
bestenik: Leizaldekoko Euzkara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jauriaritza
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

9

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALAREN



Guardetxe: ez
Albi: ez

Pagomari: ez
Igaratza: ez

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta-Irura. Autodefentsa ikastaroa antolatu dute erdialdetik ekainaren bukaera arte. Izen-ematea bi udalekueetan gaur arte. Gaur bilera Irurako udalekuean 19:00etan ordutegia eta prezioa zehazteko.

Anoeta. Udalak Eguberrietako pinu naturalak jasoko ditu konposterako birziklatzeko. Zaborra uzten den ohiko tokietan utzi behar dira, kontenedoreetan sartu gabe.

Leizta. Mendia eta naturaz III. Argazki Rallya. gehienez 3 argazki aurkez daitezke. Izen-ematea ilbeltzaren 15 baino lehen. Informazioa: 948 51 08 14.

Tolosa. Ero Etxe elkartean 19:30ean krosa antolatzen bilerak ikastetxeetako ordezkariekin.

Tolosa. 2005eko mendiko federatu txartela egin daiteke bi mendi elkartean 19:30etik 21:00etara.

Alpino Uzturren astelehen eta asteazkenetan eta Oargin astearte eta ostegunetan.

Tolosa. Mendi irteera igandean: Azkarate-Urretxu. Izen-ematea Alpino Uzturre elkartean

Villabona. Zubilana-Orduña mendi irteera igandean. Izen-ematea Aizkardian.

IKASTAROK

Tolosa. Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuan CNC fresadora programatzea, CAD 3D (Solid EDGE) eta analisi kontablea ikastaroetan plazak daude. Doan dira izen ematea ikastetxean (943 65 11 47).

Tolosa. Tolosaldeko Gurutze Gorria lehen laguntzen ikastaroa antolatu du urtarrilaren 10etik 22ra. 30 ordu dira, asteleheneetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara. Informazioa: 943 674888 eta 647 371529.

ZINEMA

Alegia. Machuca. Gaztetxean 21:30ean.

Tolosa. Los increíbles. Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

Jon eta Balantx, onenak

TOLOSA ▶ Bigarren aldiz, sekulako giroa lortu zuen igandeko arraun erakustaldiak; sanjoanetarako benetako lehiaketa antolatzekotan dira



Jendetza bildu zen Zumalakarrin, Zumardi txikian eta bi zubietan arraun erakustaldia ikusteko. HITZA

ERREDAKZIOA

Eguraldia lagun, sekulako arraun festa izan zen igandean Tolosan, Nafarroako zubia eta Zubi Berriaren artean. Hamar batel aritu ziren erakustaldian erlojuaren kontra binaka eta bi denbora onenek (Jon eta Balantx) finala jokatu zuten berriz ere. Azkenean Jon taldeak irabazi zuen.

Herrian lehenengo ohiturak



Jon izeneko batelak egin zuen erakustaldiko denborarik onena. HITZA

berreskuratzeko dagoen go-go nabarmena da, ikusle asko eta asko (1.500 bat bai) bildu baitzen Zumalakarregi kaleko ibaialdeko espaloian, Zerkausian, bi zubietan eta baita Zumardi Txikian ere. Eta jada ildo horretan bi erreferentzia badira: bata joan zireneko sanjoanetakoa eta bestea hauxe. Aurrekari politikak oso 2005eko sanjoanetarako. Lehia bi aste-burutan egiteko asmoa dute sanjoanetan, sailkapeneko eta finalak. Eta lehiaketa izango da, bai, batel estropadak goitik bera, lehenengo eran, luzera bereko estropada eremuan.

«Horretarako presaren erakitzean aurrerapausoak ematen jarraitzea da gakoa», antolatzaileen esanetan. Udalak jada onartu du aurtengo aurrekontuetan presari zuzendutako diru partida. Halere, aurtengo sanjoanetarako ez da izango, beraz 2004an bezala, *betiko* egurrezkoa altxatu beharko dute seguruenik.

Balantzea oso oso baikorra egin dute: parte-hartzaileak eta herritarrak gustura gelditu ziren eta aurrera jarraitzeko motibazioa dute. Apostu giroa bakarrik falta da. Hori ere bultzatu nahi dute hurrengoan.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Joxe Aldalur eta Martina Urdanpilleta (Aldaba).

Orain dela 64 urte ezkondu zineten. Zorionak etxeko guztien partetik.



ZORIONAK!!!

Alain Etxarri, Etxarri I.a.

Gaur 11 urte.

Etxeko partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!